

# Getxo >MEETING<



**Ekainak 20**

## **Getxophoto saio berezia: Zehaztu berriro zure empresa estrategia Art Thinking metodologiaren laguntzaz**

Irudi batek horrelaxe lagundu ahal dizu mila hitz jartzen zure enpresaren estrategiari.

Agian hasiera batean zure enpresaren estrategiari buruz hausnartzea grisa eta aspergarria dela irudituko zaizu; hala ere, ikusteko erabiltzen duzun kristalaren araberakoa izango da ikuspuntua. Kristal hori metodologia izango da, hain zuzen ere.

*Art Thinking at Work* metodologiaren bidez, metafora bisual gisa irudiak erabiltzea lagungarria da norberaren beharrianak eta nahiak hobeto ulertzeko, bai eta gure egunerokotasunean gure ikuspuntutik kanpo geratzen den informazio gehiago lortzeko ere.

Kaleetan Getxophoto egoteari etekina atera nahi izan diogu gure estrategia lantzeko.

**Ekonomia-Sustapena / Promoción económica**  
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140  
[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/es/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Txukun berridatzi ditugu egindako galderak, eskura izan ditzazun gai hori lantzen jarraitu nahi duzunean.

Estrategia deritzogu jarraitu beharreko norabideari, zuk nahi duzun tokira heltzeko zure ustez hartu dezakezun bidea. Ez da urratsez urrats zehaztutako plana. Motibazioa behar dugu estrategia jakin bat aurrera eramateko eta, horrez gain, malgutasuna izan behar dugu norabidez aldatu behar dugunerako, ibai batek bidean harriak aurkitzen dituen bezala.

Zure estrategia definitzeko edo birdefinitzeko galdera garrantzitsuak:

- Zein norabide hartu nahi duzu? Denbora jakin bat igarota, zer nahi duzu bestek pentsatzea zure enpresari buruz? Zein da etorkizunean izan nahi duzun tokia?
- Zure bezeroen beharrak: Zer behar dute zure bezeroek? Zeren bila dabilta? Zertaz kezkatzen dira? Zerbaitekin al daude deseroso? (zuk konpondu ditzakezun gauzen artean)
- Estrategia gauzatzeko barne-arazoak: Zeintzuk dira estrategia gauzatzeko unean zailenak iruditzen zaizkidan alderdiak?
- Zeintzuk dira estrategia aurrera eramateko eta beharrezko erantzuteko ditudan baliabide sendoak?

Galdera horiei erantzunez oso introspekzio-lan interesgarria egingo duzu. Ausartuko al zara...?

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica  
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140  
[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/es/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

